

«KARMEL»

ZAPUZTUA

Maiz gerta oi dira gurean gauza bitxiak. Ez gera asiko orren zergati billa, baiña orrela danik ezin dezakegu uka. Euskal zelaian gabiltza asko ta asko geure izkuntza aurkitzen dan kinka ta egoera txarretik aterata naita; guztiak dagigu sail bat berean lan, eta ala ere ezin gera konpondu, inbiriz beteta lez alkarri eztenka bizi gera. Eta gero, gauza berdiñari kemena ezarten ekin arren, ez digu illeak batere dizdizkik egiten: igurtzikiak edo au darabilen eskuak ba-du okerrik, edo-ta gaitzerik.

Oraindik oraintsu Euskalerriko aldizkariak, euskerazkoak alegia, gaizki zebiltzala-ta, auleriak jota edo, mugaz andik eta emendik dirubiltze lasai bat egitea erabaki zan. Kanpaña ortan etziran aldizkari guztiak sartu, aurretiaz autatutako berezi batzuk baiño: besteak etziran, antza, duin saiaketa ortan sartzeko. Baldintza batzuk bear ziran errian egingo zan txindi-biltze ortan esku artzeko. «Karmel» etzan baldintza oien barruan ezagutua. Eta azaroaren 14-16'an egin izan zan ekin-bidean ez zuen lekurik izan. Eta onek ba-du bere izena: «zapuztua» geratu zan.

Emen daukagu aspaldiko pekatu bat. Ez degu besteren izerdirik ontzat artu nai; neu ta neu bakarrik, eta ain zuzen ere aintxiñakoa bait degu norberekeria deritzan griña barraban au. Ariari ekiñik, KARMEL-

-ek ez du soiñeko lorriña, ez du zikiña, ezta gaurkoa ere; beste aldizkari askok ez dutena da onen istoria. Urteak dirala, an Errepublika urteetan, 1931'an kaleratu zan «Karmen'go Argia»-ren lenengo zenbakia. Illero agertu zan ondoren. Garai artan Gipuzkoa'n «Argia» asterokoa ta «Euskal-Esnalea» illerokoa, Naparroa'n «Zeruko Argia», ta Bizkaia'n «Jaungoiko-Zale», «Jesús'en Biotzaren Deya» ta «Karmen'go Argia», etzan beste aldizkarririk. Gerra eldu zanean denok ixildu bearra izan zuten.

«Karmen'go Argia»-k atertu bage ekin zion bere lanari bost urte ta erdian, au da, 1931'ko urtarrillaren lenengotik 1936'ko dagonillaren azkenerarte. Il ontan ixildu zan inguruko mendi ta troketan kañoieta suizkilluen otsa eten barik entzuten zala, 68 zenbaki argitara eman ondoren. Bertan lendabiziko zenbakitik azkeneraiño aspertu barik idatzi zuten iru karmeldar —Xalokin, Goiria ta S. Onaindia— gaur ere orduko lanari lotuak bizi dira, «Karmel»-en idatzi ta idatzi.

Gerra ondoren, zer? Euskalerrria ta euskera maite ditunak ezingo du, naiz-ta ekaitz gordiña gain erori, luzaroen ixillik iraun. Astindu egiten da gainean dugun zartailluak jasotako zaldar-auditua, ta aurrrera!, lanera berriz ere. Ni guda-biñetan kapellau zortzi bat illabete ibilli ondoren, El Dueso'ko espetxean jausi nintzanean epaikariak iru galdera egin zizkidan: 1) Zein daukazu zuk zeure aberritzat, Espaiña ala Euzkadi?; 2) zuk «Karmen'go Argia»-n idatzi izan duzu, zergatik?, eta 3) etzenun eretirik izan frentean gure aldera igarotzeko? Pekatu larria zan noski euskal aldizkarietan idaztea.

Gu, ala ere, espetxe ta erbeste larri erabillitakuok, leenera biurtu giñan, eta or berriz ere, iru urte itzalpean egiñok, euskal arloan lan eta lan. 1949'an, Hoz de Anero (Santander)'ko komentuan nagusi nengoela, «Karmengo Amaren Egutegia», 132 orrialdeko liburuxka eder-rra, prosaz eta bertsoz, musikaz eta abarrez aberats, gertatu ta argitara eman nuen. Orrela asi nintzan, edo asi giñan, geroago «Karmel» izan-go zana ateratzen.

Orrelaxe bai, 6 urtez zintzo-zintzo, neuk, Goiria'k eta Libino Dañobeitia'k (Amezti'k) zuzenduta. Aita Libino'k bi-illerokoa egin zuen 1957'an. Urte ontatik aurrera, A. Libino Erroma'ra deitua izan bait zan, neuk zuzendu nuen. «Gure Egutegi eder au —zion A. Libino'k— urterik urte, obeto doiala esan bear. Augaitik pozarren, oindiño indar geiago emon naiez aurkitzen gara. Or, ba: datorren urtetik, au da, 1957'tik aurrera, urtean bein barik, urtean lau (sei) bider argitaratuko dogu; zenbaki bakotxak 46 orrialde eukiko ditu».

Olantxe egin genduan aurrera bost-sei urtetan. Etzan gure lana ondo ikusia izan, goikoen artean batez ere. Garai artan, izan ere, izterbegiz begiratua ta zorrotz zaindua zan euskeraren aldeko arazo guz-koak bereziki, baitu-azi ta esku artean zebilzkien zeregiñen eta eman-dako urratsen kontua eman bear zutenak: epaitzerakoan, ia beti, ea «Karmel»-ekin ar-emanik ote zuten izan oi zan zegizkieten galdereta-rik bat, ez urria.

Ondoren neregana etorri oi ziran albiste billa: nola jokutzen nuen lanetan, baimenik ba ote nuen, noren pentzutan ateraten ote nuen aldizkaria ta abar, jakin nai izaten zuten geienik. Orduan, eta geroago, amabi bat bidar etorri zitzaizkidan polizikuak, ondo ta ertsi begiratua bait nintzan 1954-tik, au da, nere «Milla Euskal Olerki Eder» argita-ratu nuenetik. Etziran —esan zidatenez— Madrid'ekoak bakarrik nire ondoren akats billa zebiltzanak, baita etxeokoa ere. Ez, «Karmel» etzan ondo ikusia, euskera utsean egiten zuen lanagatik.

Guztitako lanak zetozen; erriarentzat zan eta erriari, bere maillan, eskeiñi bear zitzaion atsegin zuena. Ementxe zetozen baita antzerki, komeri politak, itzulpenak (Dante'ren Suleza, R. Tagore'ren ainbat lantxo). Ementxe idazten zuten Orixe, Arritokieta, Ibargutxi, A. Zubikarai, L. Akesolo, L. M. Muxika, Aita Emiliano, E. Igartza, Egieder, Bordari, Melo Alfereza, Dundunzar, Areatza'ko bertsolari Jon Enbeita, Lopategi, Deunoro ta abarrek. 2.500 bat arpidedun zeuzkan Euskalerrri osoan, mugaz andik eta emendik, Logroño'n eta inguruetan ere bai.

Baiña ez da ona ta egokia, iñolaz ere, geiegi nabarmentzea, etsaiak agertzen bait zaizkigu laister. Eta etsaiok —mordoa izan noski— al zuten guztia egin ziguten «Karmel», zazpuztua, ixil-zokora botatzeko. Ez omen zuen baimenik, eta kontuz gero, ez ateratzeko geiago.

Ixildu bearra nunbait; baiña urte beteko ixil-egotea bakarrik. Ma-drid'etik baimena lortzea eziña zan ezkerro, beste bideren bat asmatu bear, nituen arpidedunekin ar-emana ez eteteko. Asmatu ta asmatu. liburu sail bat ateratea onartu gendun azkenik. Eta orrelaxe, «Karmel»-en ordeaz, lendik ere zerbait egiña genduan Santa Teresa'ren «Onbi-dea» bidali genien arpidedunei; ez ziguten gaizki artu. Urrengo bi urteetan ere berdin, 1964'an «Gure Bertsolariak», J. A. Agirre Saria iritxi zuena, ta 1965'an «Jolasketa», irakurgai, poesi ta ipuiez ornitu-riko 584 orrialdeko liburu mardula, banatu ziran.

Taiu au ere etzala orren egokia-ta, irakurleekin sarriago artu-ema-
na izan nairik, 1967'an beste bide bat artzea erabaki genuen: urtean
lau bat idaztiño zabaltzea. Orrela irten zan lenengo alea, «Aurrera»
zeritzana. 1968'gnek lenengo liburuxkak onela zekarren: «Emen KAR-
MEL berriro. Jantzi barriz datorkizu, ixillaldi luze samarraren ostean.
Ez, gero, aldizkari lez, liburu txiki antzera baiño. Liburuak gai bat
izan oi dau, ta gai nagusi orren biran, beste txikiago batzuk pillotzen
dira. Guk be orrela egingo dogu. Lenengo ale onetan «Populorum
progressio» deritxon inziklika inguruan zerbait egin dogunez. Urtean
lau liburuxka izango dira, irurogeita lau-zortzi bat orrialdekoa. Bako-
txak gai bat erabilli arren, beste asko be sartuko ditugu, irakurgai
atsegingarria izan dedin. Erderazko *Selecciones, Meridiano, Fetes et*
Saisons eta antzekoak dagien modura edo».

Urte onetan bertan, au da, 1968'an, Larrea'ko Karmen'go Amaren
koroatzea zala-ta, «Larrea eta karmeldarrak» zeritzan argazkiz, idaz-
lanez eta gaiñerakoz dotore jantzitako, 124 orrialde zituena argitara-
tu nuen. Urrengoaren asikeran (1969'an) «Giza-bizia» kaleratu zan;
aur-sortzeari buruzko lan ugariak, Aita Santu Paul VI'garrenak jaiot-
zak neurtu ta eratzea zala-ta egin zuen idazkiaren itzulpenak eta beste
ainbat gai ta olerkiz aberasturik, 186 orrialde zeuzkan liburua etzan
albora uztekoa.

Azkenez, gutxien uste genuanean, lortu zan «Karmel» aldizkari be-
zela argitaratzeko baimena, ainbat urtetan ukatua. Eta 1970'an asi giñan
«Karmel» gaur daraman itxura ta neurrian ateratzen, iru-illabeteroko
aldizkaria, ain zuzen ere. Nere izenak ez zuen aintzakotzat artzerik,
eta A. Benito Etxebarria jarri genuen zuzendari, ta auek onulari: Ar-
teaga'tar Lon, Beiztegi'tar Jon, Garmendia'tar Karmel eta Garitaonan-
dia'tar Gotzon. Banatzaille egingo nuen nik.

Lenengo zenbakian onela esaten nuen: «Itz bi. Egunak eguna da-
kar, leza-osiñak, esan oi dogunez, lezari dei. Emen gu be, geure barru-
ko deiak dei eginda, nun gatozan lengo arlorra barriro. Ezin, ba, aiztu
KARMEL aldizkaria. Eta emen gaukazuz, irakurle, barriro be zugaz
izketan. Zortzi urte ixillik. Baiña, ba-dakizu, ezta gure erruz be izan.
Osasuna ta argia dogun bitartean, Jaunak lana eskatzen dausku, egu-
neroko lana: «gizonak bere bekokiko izerdiaz jango dau». Berak esan
eban. Idaztea be lana da, lan gaitza sarritan; baiña pozik egiten dana.
Bere arriskuak ditu, ta ez gitxi; argitara emon dan liburuak ba-ditu
milla etsai, baita milla adiskide be; adiskideak, akats eta guzti be,

1973
21

erretararaino jasoko; etsaiak, oster, ezeren utsik baldin badu, erre-
ta zulora botako dabe. Erdiko bidetik ibiltea, ez izan errez». Dana
emendatu, emen datorkigu KARMEL». Eta ondo datoz dauzkan asmo ta
egintzak 96 orrialde zeuzkan.

Orrelaxe etenbako ekiñean urte batzuk jardunik, neronek ere asti-
go batzuk bear nitula-ta, 1974'an beste baten eskuetan utzi nuen
aspaldiko «Karmel»-en zuzendaritza: aurrerantzean Aita Karmelo Zu-
zarreta azkoitiarrak, beiñola Melo Alferezak arteztuko zuen, berau
urte mordotxoan bizi izan dan eta gaur be bizi dan Eizar'ko komen-
tari.

Bijoa emen ark 1974-garreneko lenengo zenbakian irakurleai bial-
tzen dien agurra: «Karmelen agurra, berriz ere, or dijoakizue euskal
errian barrena. Ixil aldi koxkor bat egin ondoren, irrintzika, oiuka,
arnasa garbiz indartuta joan ere. Irakurle zaarrak eta berriak, denak,
agurtu nai ditut. Elizaren arnasa garbia emanda zabaldu nai dut gure
euskal erriko sukaldeetan. Erriaren nortasunari indar berri-berezia eman
nai diot. Eta ori, dena... alkartasun piñean, aspaldi ontan idazleen
artean sortu diran burruka xextra aldrebesak alde batera utzita. Iñoren
kontra arrika jardutzeko asmoak, ongi etoririk ez dute izango nere
mamitan. Karmel aldizkariarentzat, leen bezala, orain ere, gorrotoak,
arrokeriak, aizekeriak, diabrukeri utsak dira-ta, onelako alzedunik ez
ditu nai nigan. Maitetasunak gozatu bearko ditu letrak eta iritziak.
Erriaren maitasunak eta Eliza Amaren maitasunak, alegia. Elkar erres-
petaturik, H dala ta ez dala, erriaren eta Elizaren kritika beti jatorki
egiñaz, aurrelariak edo atzelariak dirala, aurrera jotzailleak edo-ta la-
nari euslariak dirala, errespetuz joka nai dut». Ba ote da asmo oberik?

Eta orrela daramazkigu beste zazpi, iñoiz ere geure lanean, gure
erriari kultura ematen gogait-egin gabe. Beti euskeraz, gure aldizkaria,
bere aroetan, euskera utsezko aldizkaria izan baita; ez du erderarik
egundo erabilli bere ia berrotamar urteotan. Eta erabilli ere, beti iñoiz
utsik egin gabe, euskera goxo, errikoi ta Euskalerra osoak ulertzeko
modukoa erabilli izan da. Orixegatik edo, KARMEL maite izan du
gure erriak, gure euskal erriak. Onez oartu ta nabaiturik, noski, kar-
meldar idazle multzoa aspaldian saiatu izan da erriari gai askotaz —gi-
zarte, erlijio, edesti, jakintza— bear zuen, eta bear duen, janaria es-
keintzen.

Orain, ordea, krisisa latz batean gaudela-ta, aldizkariak ere kinka larri orren eragiña, ziztadea sentitu dutela esan bear. Il edo ixillera ez naita, gaur oitura danez, erriari eskabide bat egitea otu zaie batzuei. Euskal prentsa gabe ez omen dago euskal erririk. Ez dakit egia da nik: euskal erria gizaldi luzeetan, eta gaur bezain ondo, bizi izan da prentsa barrik. Dana dala, prentsa bear omen da gaur; euskal erria ondatzeko ala poztu ta eskolatzeko, ori ez dakigu. Euskeraren onerako? Prentsa ta guzti ere, azken urteotan beerakada ederra eman digu beintzat.

Beerakada au ez da izan, ain zuzen ere, euskal aldizkarien faltan gaudelako, Iñoiz baiño geiago ditugu. Batzuk arnasa aundikoak eta beste batzuk egazkada motza dutenak. Beren ustez egazkada aundikoak diran batzuk kondizio eta baldintzak jarri dituzte «diru-eske» orretan sartu al izateko. Onela Deiak, 1980 azaroak 14, ostirala, baldintzak aipatuz: «Su periodicidad y antigüedad. Que estén escritos íntegramente en euskara. Que tengan difusión nacional, sean de información general y no dependan de ningún grupo económico o institución». Eta kondizio auek beteten ez zituztelako, kanpaina ortatik kanpo gelditzen ziran, bi edo iru buru aizetsuri olan begitandu zitzaielako: «Zer», «Karmel», «Oh Euskadi», «Elhuyar», «Jaunaren Deia», «Pott», «Killikili» ta «Ipurbeltz» beintzat.

Besteak beste, «Karmel»-ek zergatik ez ote ditu betetzen apeta utsez ipiñitako baldintzok? Ikus idatzi dugunetik: 1) noiztikoa dan eta illean zenbat alekoa dan «Karmel»; 2) euskeraz bakar-bakarrik idatzi izan da «Karmel»-en; 3) mugaz andik eta emendik, zabal ta luze, irakurria izan da «Karmel»; 4) gai guzti-guztiai, ez politikari bakarrik, ukitu zaie «Karmel»-en, eta 5) «Karmel»-ek ez dau iñungo talderen, ez erakunderen laguntzarik izan; neuk bakar-bakarrik zuzendu ta ordaindu izan dut urteetan. Beraz, zergatik izan da zapuztua?

Aita Onaindia

